Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
Boletín Oficial de Gipuzkoa

2014ko azaroaren 28a, ostirala
228
Viernes, a 28 de noviembre de 2014

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO XEDAPEN OROKORRAK

3

DISPOSICIONES GENERALES DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA

## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

### OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA

*627/2014 FORU AGINDUA, azaroaren 26koa, «Kreditu entitateetako gordailuen gaineko zergaren konturako ordainketa. Autolikidazioa» izeneko 410 eredua onartu, eta haren aurkezpenerako baldintzak eta prozedura ezartzen dituena.*

Abenduaren 27ko 16/2012 Legeak, finantza publikoak kontsolidatzeko eta jarduera ekonomikoa bultzatzeko zerga arloko zenbait neurri ezartzen dituenak, bere 19. artikuluan kreditu entitateetako gordailuen gaineko zerga onartu zuen 2013ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin. Hala ere, kreditu entitateetan eratutako gordailuak ez ziren benetan zergapetu 2013ko zergaldian, 100eko 0ko karga tasa finkatu baitzen haietarako. Gainera, ezarrita utzi zen ezen haien kuota osoa zero eurokoa izanez gero, ez zela aurkeztu beharko ez zergaren autolikidaziorik ez konturako ordainketaren autolikidaziorik.

Apirilaren 21eko 7/2014 Legeak, Ekonomia Ituna aldatzekoak, besteak beste kreditu entitateetako gordailuen gaineko zerga utzi zuen hitzartuta 2013ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin. 23.ter artikuluan dioenez, tributu hau estatuak une bakoitzean ezartzen dituen funtsezko eta formazko arau berberei jarraituta erregulatu behar da, nahiz eta lurralde historikoetako erakunde eskudunei ahalmena ematen zaien karga tasak ezartzeko, lurralde erkidean ezarritako mugen eta baldintzen barruan.

Lurralde historikoetako erakunde eskudunek ahalmena dute, orobat, aitorpen eta ordainketa ereduak onartzeko eta likidazio-aldi bakoitzeko ordainketa epeak zehazteko. Baina eredu horietako datuak, gutxienez, lurralde erkidean erabiltzen diren berberak izan behar dira; eta epe horiek, berriz, ezin dira izan Estatuko Administrazioak ezarritakoez oso bestelakoak.

Geroago, uztailaren 4ko 8/2014 Errege Lege-Dekretuak, hazkundea, lehiakortasuna eta efizientzia sustatzeko presako neurriei buruzkoak, aldaketak sartu zituen kreditu entitateetako gordailuen gaineko zergan, eta 100eko 0,03ko karga tasa ezarri zuen 2014ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, halako moduz non, 2014ko zergalditik aurrera, zergaren zergadunek zergaren autolikidazioa aurkezteaz gainera, ordainketa bat ere egin behar dute, haren konturakoa, ekitaldiaren barruan.

Horiek horrela, aintzat hartuta zer dioen 19. artikuluan kreditu entitateetako gordailuen gaineko zergari buruz abenduaren 27ko 16/2012 Legeak, eta kontuan izanik maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen bidez onartutako Ekonomia Itunaren 23.ter artikuluan aurreikusitakoa, foru agindu honen xedea da onartzea zergaren konturako ordainketa egiteko erabiliko den autolikidazio eredua.

Zergaldi bakoitzari dagokion konturako ordainketaren autolikidazioa ekitaldi bakoitzeko uztailaren 1etik 25era bitartean aurkeztuko da. Dena den, 2014ko zergaldirako, epe berezia ezarri da, eta autolikidazioa abenduaren 1etik 26ra bitartean aurkeztu ahal izango da.

## DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

### DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y FINANZAS

*ORDEN FORAL 627/2014, de 26 de noviembre, por la que se aprueba el modelo 410 «Pago a cuenta del Impuesto sobre los Depósitos en las Entidades de Crédito. Autoliquidación» y se establecen las condiciones y el procedimiento para su presentación.*

La Ley 16/2012, de 27 de diciembre, por la que se adoptan diversas medidas tributarias dirigidas a la consolidación de las finanzas públicas y al impulso de la actividad económica, en su artículo 19 aprobó el Impuesto sobre los Depósitos en las Entidades de Crédito con efectos 1 de enero de 2013. Sin embargo, los depósitos constituidos en las Entidades de Crédito no fueron objeto de tributación efectiva en el periodo impositivo 2013, puesto que se estableció un tipo de gravamen del 0 por 100, especificándose que no era obligatoria la presentación de autoliquidaciones ni del impuesto ni de su pago a cuenta en el caso de que la cuota íntegra de las mismas fuera igual a 0.

Con efectos 1 de enero de 2013, la Ley 7/2014, de 21 de abril, por la que se modifica la Ley del Concierto Económico, concertó entre otras figuras tributarias, el Impuesto sobre los Depósitos en las Entidades de Crédito, definiéndolo en el artículo 23 ter como un tributo que se regirá por las mismas normas sustantivas y formales establecidas en cada momento por el Estado, aunque habilita a las Instituciones competentes de los Territorios Históricos para establecer los tipos de gravamen dentro de los límites y en las condiciones vigentes en cada momento en territorio común.

Asimismo, habilita a las Instituciones competentes de los Territorios Históricos para aprobar los modelos de declaración e ingreso que contendrán, al menos, los mismos datos que los del territorio común, y señalar plazos de ingreso para cada período de liquidación, que no diferirán sustancialmente de los establecidos por la Administración del Estado.

Posteriormente, el Real Decreto-ley 8/2014, de 4 de julio, de aprobación de medidas urgentes para el crecimiento, la competitividad y la eficiencia, introdujo modificaciones en el Impuesto sobre los Depósitos en las Entidades de Crédito, estableciendo con efectos desde 1 de enero de 2014 un tipo de gravamen del 0,03 por 100, de tal manera que, a partir del periodo impositivo 2014, los contribuyentes del Impuesto, además de presentar la correspondiente autoliquidación del Impuesto, están obligados a efectuar un pago a cuenta del mismo en el ejercicio en curso.

Así pues, teniendo en cuenta la regulación del Impuesto sobre los Depósitos en las Entidades de Crédito prevista en el artículo 19 de la Ley 16/2012, de 27 de diciembre, y lo previsto en el artículo 23 ter del Concierto Económico, aprobado por la Ley 12/2002, de 23 de mayo, la presente Orden Foral tiene por objeto aprobar el modelo de autoliquidación del pago a cuenta del impuesto.

El plazo para presentar la autoliquidación del pago a cuenta correspondiente a cada período impositivo se fija entre el 1 y el 25 del mes de julio de cada período. No obstante, para el período impositivo 2014 se ha establecido un plazo especial de presentación de dicha autoliquidación entre el 1 y el 26 del mes de diciembre.

EK\CV GAO-I-2014-10751

Honenbestez, hau,

XEDATZEN DUT

*1. artikulua. 410 eredua onartzea.*

Onarturik geratzen da «Kreditu entitateetako gordailuen gaineko zergaren konturako ordainketa. Autolikidazioa» izeneko 410 eredua, foru agindu honetan eranskin gisa jasotzen dena.

*2. artikulua. 410 eredua aurkeztera behartuak, eta edukia.*

Bat. Abenduaren 27ko 16/2012 Legeak, finantza publikoak kontsolidatzeko eta jarduera ekonomikoa bultzatzeko zerga arloko zenbait neurri ezartzen dituenak, 19. artikuluan xedatutakoaren arabera kreditu entitateetako gordailuen gaineko zergaren zergadun direnek aurkeztu behar dute 410 eredua, betiere artikulu horren laugarren apartatuan salbuetsitakoen artean ez badaude.

Bi. Aipatutako abenduaren 27ko 162012 Legeak 19. artikuluaren hamargarren apartatuan jasotzen duenez, konturako ordainketaren zenbatekoa artikulu horretako zortzigarren apartatuan aurreikusita dagoen karga tasa aurreko zergaldiko zerga oinarria aplikatzetik ateratzen denaren 100eko 50 izango da.

*3. artikulua. 410 eredua aurkezteko moduak.*

Bat. 410 eredua elektronikoki aurkeztuko da beti, Internet bidez, «Gipuzkoatarria» tramite eta zerbitzuen atarian, https://www.gfaegoitza.net helbidean, kokatutako formularioa betez.

Aurkezpena egiteko, azaroaren 24ko 1011/2010 Foru Aginduak, zerga arloko zenbait tramite bide elektronikoz egiteko obligazioa arautzen duenak, ezarritako prozedurari jarraitu behar zaio.

Bi. 1011/2010 Foru Aginduaren 1.1 artikuluko a) eta b) letretan aipatzen diren zergapekoek beren identitatea frogatu behar dute dela sinadura elektroniko balioztatuaren bitartez, dela pasahitz operatiboa erabilita, Foru Administrazioaren eremuan bitarteko elektronikoen erabilera arautzen den irailaren 28ko 23/2010 Foru Dekretuak 21. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

1011/2010 Foru Aginduaren 1.1 artikuluko c) letran aipatzen diren pertsonek edo entitateek sinadura elektroniko balioztatua erabiliz frogatu behar dute beren identitatea, betiere azaroaren 5eko 582/2014 Foru Aginduak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuko zerga ordezkarien errolda arautzen duenak, 9. artikuluan eta haren hurrengoetan xedatzen duen moduan.

Hiru. Internet bidez aurkeztutako 410 eredua aldatu, zuzendu edo baliogabetu nahi bada foru agindu honen 4. artikuluan aipatutako epea amaitu aurretik, bide elektronikotik egin beharko da beti.

*4. artikulua. 410 eredua aurkezteko epea.*

Zergaldi bakoitzeko uztailaren 1etik 25era bitartean aurkeztuko da 410 eredua.

Epearen azken eguna larunbata edo egun baliogabea bada, hurrengo lehen egun baliodunera luzatuko da.

*5. artikulua. 410 eredua ordaintzeko era.*

Bat. 410 ereduaren autolikidazioei dagozkien ordainketak bankuan helbideratuta edo ordainketa-pasabidearen bitartez egin daitezke.

Bi. Banku batean helbideratuz gero, ordainketa kargatuko da zergadunak autolikidazioan adierazten duen kontuan, zeinak

En su virtud,

DISPONGO

*Artículo 1. Aprobación del modelo 410.*

Se aprueba el modelo 410 «Pago a cuenta del Impuesto sobre los Depósitos en las Entidades de Crédito. Autoliquidación» que figura como anexo de la presente Orden Foral.

*Artículo 2. Obligados a presentar el modelo 410 y contenido.*

Uno. Estarán obligados a presentar el modelo 410 quienes tengan la condición de contribuyentes del Impuesto sobre los Depósitos en las Entidades de Crédito conforme a lo dispuesto en el apartado seis del artículo 19 de la Ley 16/2012, de 27 de diciembre, por la que se adoptan diversas medidas tributarias dirigidas a la consolidación de las finanzas públicas y al impulso de la actividad económica, y no gocen de exención conforme a lo dispuesto en el apartado cuatro.

Dos. De conformidad con lo previsto en el apartado diez del artículo 19 de la Ley 16/2012, de 27 de diciembre, citada anteriormente, el importe del pago a cuenta será del 50 por 100 de la cuantía resultante de aplicar el tipo de gravamen previsto en el apartado ocho del mencionado artículo 19 a la base imponible del periodo impositivo anterior.

*Artículo 3. Formas de presentación del modelo 410.*

Uno. La presentación del modelo 410 se realizará de forma electrónica por Internet, cumplimentando el formulario ubicado en el portal de trámites y servicios «Gipuzkoataria» ubicado en la dirección https://www.gfaegoitza.net.

La presentación se efectuará con arreglo al procedimiento previsto en la Orden Foral 1011/2010, de 24 de noviembre, por la que se regula la obligación de efectuar determinados trámites de carácter tributario por vía electrónica.

Dos. Los obligados tributarios a los que se alude en las letras a) y b) del artículo 1.1 de la Orden Foral 1011/2010 anteriormente citada deberán acreditar su identidad utilizando la firma electrónica reconocida o a través de la clave operativa, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 21 del Decreto Foral 23/2010, de 28 de septiembre, por el que se regula la utilización de medios electrónicos en el ámbito de la Administración Foral.

Las personas o entidades a las que se alude en la letra c) del referido artículo 1.1 de la Orden Foral 1011/2010 deberán acreditar su identidad a través de la firma electrónica reconocida, con arreglo a lo dispuesto en el artículo 9 y siguientes de la Orden Foral 582/2014, de 5 de noviembre, por la que se regula el censo de representación en materia tributaria del Departamento de Hacienda y Finanzas de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Tres. La modificación, rectificación o anulación del modelo 410 presentado por Internet que se efectúe antes de la finalización del plazo a que se refiere el artículo 4 de esta Orden Foral, sólo se podrá efectuar por la misma forma electrónica.

*Artículo 4. Plazo de presentación del modelo 410.*

El plazo para la presentación del modelo 410 será el comprendido entre el 1 y el 25 del mes de julio de cada periodo impositivo en curso.

Cuando el último día del plazo sea sábado o inhábil, se entenderá prorrogado al primer día hábil siguiente.

*Artículo 5. Forma de ingreso del modelo 410.*

Uno. Los ingresos correspondientes a las autoliquidaciones del modelo 410 podrán realizarse mediante domiciliación bancaria o a través de la Pasarela de Pagos.

Dos. La domiciliación bancaria se realizará con cargo a una cuenta de titularidad del contribuyente, abierta en una enti-

EK\CV GAO-I-2014-10751

haren izenean irekita egon behar baitu zergak biltzeko baimenduta dagoen entitate laguntzaile batean. Ondorio horietarako, aplikatuko da Gipuzkoako Zerga-bilketa Erregelamenduak, abuztuaren 2ko 38/2006 Foru Dekretuaren bidez onartuak, 30. artikuluan xedatutakoa.

Hiru. Diru-sarrera egiteko ordainketa-pasabidea erabiltzen bada, kontuan hartuko da abenduaren 11ko 1074/2008 Foru Aginduak ezartzen duen prozedura. Gipuzkoako Foru Aldundiko zuzenbide publikoko diru-sarrerak ordainketa-pasabidearen bitartez ordaintzeko era arautzen da foru agindu horretan.

Autolikidazioa ongi transmititutakoan egin ahal izango da diru-sarrera ordainketa-pasabidearen bitartez.

Ordainketa-pasabidea erabilita ere, autolikidazioak aurkezten direnean nahitaezkoa da helbideratze kontuaren datuak betetzea.

XEDAPEN IRAGANKORRA

*Bakarra. 2014ko ekitaldiko 410 ereduaren aurkezpena.*

Bat. Kreditu entitateetako gordailuen gaineko zerga delaeta 2014ko zergaldiarengatik egin beharreko konturako ordainketaren autolikidazioa 2014ko abenduaren 1etik 26ra bitartean aurkeztuko da.

Bi. 2014ko zergaldiari dagokion konturako ordainketaren zenbatekoa portzentaje hau izango da: aipatutako abenduaren 27ko 16/2012 Legearen 19.zortzi artikuluan aurreikusita dagoen karga tasa artikulu horren zazpigarren apartatuko erregelek zergadunaren 2013ko banakako finantza-egoerei dagokienez ematen duten zerga oinarriari aplikatzetik ateratzen den zenbatekoaren 100eko 50.

AMAIERAKO XEDAPENA

*Bakarra. Indarrean jartzea.*

Foru agindu hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean.

Donostia, 2014ko azaroaren 26a.—Helena Franco Ibarzabal, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatua.
(10751)

dad colaboradora en la gestión recaudatoria de los tributos que a tal efecto indique el contribuyente en la autoliquidación presentada. A tales efectos será de aplicación lo dispuesto en el artículo 30 del Reglamento de Recaudación del Territorio Histórico de Gipuzkoa, aprobado por el Decreto Foral 38/2006, de 2 de agosto.

Tres. El ingreso a través de la Pasarela de Pagos se realizará con arreglo al procedimiento previsto en la Orden Foral 1074/2008, de 11 de diciembre, por la que se regula el pago de ingresos de derecho público de la Diputación Foral de Gipuzkoa a través de la Pasarela de Pagos.

El ingreso a través de la Pasarela de Pagos se podrá efectuar una vez se haya transmitido válidamente la autoliquidación correspondiente.

Sin perjuicio de la posible utilización de la Pasarela de Pagos, al presentar las autoliquidaciones es obligatorio cumplimentar los datos de la cuenta de domiciliación bancaria.

DISPOSICIÓN TRANSITORIA

*Única. Presentación del modelo 410 correspondiente al ejercicio 2014.*

Uno. La autoliquidación correspondiente al pago a cuenta del Impuesto sobre los Depósitos en las Entidades de Crédito correspondiente al periodo impositivo 2014 se presentará en el plazo comprendido entre el 1 y el 26 de diciembre de 2014.

Dos. El importe del pago a cuenta correspondiente al periodo impositivo 2014 será del 50 por 100 de la cuantía resultante de aplicar el tipo de gravamen previsto en el apartado ocho del artículo 19 de la Ley 16/2012, de 27 de diciembre, anteriormente citada, a la base imponible que derive de las reglas contenidas en el apartado siete del referido artículo 19, respecto de los estados financieros individuales del contribuyente de 2013.

DISPOSICION FINAL

*Única. Entrada en vigor.*

La presente Orden Foral entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa..

San Sebastián, a 26 de noviembre de 2014.—La diputada foral del Departamento de Hacienda y Finanzas, Helena Franco Ibarzabal.
(10751)

ERANSKINA / ANEXO

Gipuzkoako Foru Aldundia
Ogasun eta Finantza Departamentua
Departamento de Hacienda y Finanzas

www.gipuzkoa.eus/ogasuna
*8400014102014*

**Kreditu Entitateetako Gordailuen gaineko Zerga**
***Impuesto sobre los Depósitos en las Entidades de Crédito***

**Konturako sarrera**
***Pago a cuenta***

**AUTOLIKIDAZIOA** / ***AUTOLIQUIDACIÓN***

**410**

Código de Organismo/ **Organismo Kodea:**

**75 03 6**

| Ekitaldia<br>*Ejercicio* | |
|---|---|

| **AITORTZAILEAREN IDENTIFIKAZIOA** / IDENTIFICACIÓN DEL DECLARANTE | |
|---|---|
| IFZ<br>*NIF* | Izendapen edo Sozietatearen izena<br>*Denominación o razón social* |

**LIKIDAZIOA /** LIQUIDACIÓN

**Aurreko zergaldiko oinarri ezargarria**
Base imponible del periodo impositivo anterior……………………………………… 01

Konputatu beharko dira egoitza nagusian edo Gipuzkoako lurralde historikoan kokatutako sukurtsaletan aurrez aurreko komertzializazio sistemen bidez edukitako hirugarrengoen funtsak nahiz aurrez aurrekoak ez diren komertzializazio sistemen bidez edukitakoen zatia.

*Deberán computarse tanto los fondos de terceros mantenidos mediante sistemas de comercialización presenciales en la sede central o sucursales situadas en el Territorio Histórico de Gipuzkoa, como la parte correspondiente de los mantenidos mediante sistemas de comercialización no presenciales*.

**Karga tasa**
Tipo gravamen………………………………………………………. 02

**Portzentajea**
Porcentaje……………………………………………………………….. 03 %

**Ordaintzeko emaitza/** ***Resultado a ingresar*** ( 01 x 02 x 03)……………… 04



EK\CV GAO-I-2014-10751